

TAPIO KOIVUKARI

# Islandia 1615

## Gartziaren istorioa



ikastolenelkartea  
nafarroa

IKASTOLA  
**50**  
BERRO  
GETA  
HAMAR  
URTE

## 1615 ISLANDIA: GARTZIAREN ISTORIA.

Duela 400 urte euskal bale arrantzaleak Islandian akabatuak izan zireneko ezbeharrak du oinarri Tapio Koivukari idazle finlandiarraren liburu honek. Grafismoz osatutako liburu hau finlandieraz idatzia eta ondoren islandierara itzulia da eta orain euskaraz eta ingelesez argitaratuko da Nafarroako Ikastolen Elkartearen eskutik. Helburua gure ikasleei euskal historiako parte den liburu bat eskaintzea da; ikastola bezala munduarekin konektatzen gaituen liburu eta nafar itsas bizitzari aipamen egiten diona.

### Liburuaren datuak:

Idazlea: **Tapio Koivukari**

Marraskilariak: **Fidel Azkoaga Igartza**

Azala: **Juan San Martin**

Argitaletxea: **Euskal Erria (Montevideo, Uruguai)**

Liburuaren koordinatzailea: **Xabier Irujo**

Nori zuzendua: **Lehen hezkuntzako 6.mailako eta DBHko 1.mailako ikasleei**

Orri kopurua: **140**

Liburuaren izenburua ingelesez: **Islandia 1615: A Whaler's Tale**

### Liburuaren laburpena.


Gartzia Aranburu duela 400 urteko euskal kostaldeko mutil-gazte bat da. Bere bizitzak aldaketa handia izaten du baleontzi batean upelgile aprendiz moduan kontratatua izatean. Agustín upelgilearekin batera itsasoratzen da eta Iñaki arropa garbitzailea eta Stobal arpoilaria egiten ditu lagun bertan. Euskal arrantzalez beteriko baleontzia Islandiara doa arrantzara. Tripulazioak eta beraien familiak balea ugari arrantzatuko dituzten eta onura ugari ekarriko dizkien bidaia espero dute, baina guztiek ez dute konfiantzarik Martin de Villafranca kapitán gazte eta handinahiarengan. Arrantzaleak baleak harrapatzen eta islandiarrekin salerosketak egiten okupatuta dabiltzan bitartean, Gartzia eta Agustinek gogor lan egin dute hainbeste baloratua den balea olioarentzat kupelak eraikitzen. Gainera, Gartzia Islandiako jende asko ezagutzeko aprobeztatzen du, aipagarriena Krístrún, Gartzia adin bereko neskatila bat. Balea



arrantza denboraldi oparoaren ondoren prest daude etxerantz abiatzeko, baina bapateko ekaitzak baleontziak ondoratu dizkie eta harrapatu geratu dira lur horietan. Euskal balea arrantzaleak berehala ohartu dira bertako bizilagunek mehatxutzat dituztela orain eta beraien beldur direla... Gartziazen ipuin hau leialtasun eta adiskidetasunez beteriko istorioa da batetik eta 17.mendeko Islandian bizirik irauteaz eta abenturaz beteriko kontaketa bestetik. Gertaera errealetan oinarritua dago eta Euskal Historiaren parte da.

### **Tapio Koivukari, idazlea.**

Tapio Koivukari idazle finlandiarra da baina Islandiako literaturan ere egina du bere tokia. 1959an jaio zen Finlandia mendebaldeko kostaldeko Rauma hirian eta Helsinki Unibertsitatean Teologiako ikasketak egin zituen. 1989 eta 1993 bitartean Islandian bizitu zen eta bertan lan eginez islandiera ikasi zuen. Bere herrialdera bueltatzean, islandiar literaturaren itzultzaile egin zuen lan 2000ra arte. Nobelak, kontakizun motzak, irrati eta antzerkirako istorio eta poesiak idatzi zituen besteak beste, bai islandieraz eta baita bere eskualdeko dialektoan ere. 1615ean euskal bale arrantzaleak Islandian izandako masakrearen inguruko nobela idazterakoan asko ikasi du Euskal Herria eta euskararen inguruan eta 2010ean Euskal Herria bisitatzen izan zen. Finlandia mendebaldeko kostaldeko nobelagile historikorik ezagunena da bera, arrantzale familia baten inguruan eginiko trilogiagatik edo Finlandiako mendebaldeko kostan Bigarren Mundu Gerraren eraginean inguruko liburu sortarengatik esaterako. Idazle finlandiarrak gizartean ahaztuak izan diren gaiak jorratu ohi ditu bere nobeletan, Bigarren Mundu Gerraren ondoren Sobietar Batasuneko errefuxiatuekin Suedian izan zen kontrabandoa esaterako.



### **Fidel Azkoaga Igartza, marrazkien egilea.**

Fidel Azkoagak liburua ilustratzeko 25-28 marrazki egin ditu.

Fidel Azkoaga Igartza, Elorrión (Bizkaia) jaioa 1952ko abenduaren 20an. Arte Ederretan Lizentziatua EHU-UPVn. 1979-1982 tartean, Derioko Azkue Ikastetxean, Magisteritzako Goi Eskolan, Lauro Ikastolan eta Mungiaiko Ikastolan Adierazpen Artistikoan Irakasle.

Oposaketak gainditu ondoren, Zarauzko Batxilergoko Institutuan irakasle, Geometria eta Irudigintzan, 1988 urtera arte. Gero, Leioako Arte Ederretako Fakultatean Pintura Irakasle, orain arte.

Egin ditu zenbait liburuetao ilustrazioak, Kultura eta Jaia arloko kartelak, Industria eta Merkataritzarako Logotipoak, beste lan batzuen artean. Hala nola, antzerki taldeetarako eszenografiak, figurinak eta kartelak.

Zenbait pintura lehiaketatan irabazle, Elorrión, Durangon Barakaldon, Bergaran, Zornotzan, Arrasaten, Izurtzan, Lakuntzan, Orkoienen eta Ezkabarten.

### **Xabier Irujo, liburuaren koordinatzailea.**

Munduko hainbat txokotan osatzen joan den liburua da: Renon (Estatu Batuak) koordinatua, Finlandian idatzia, Uruguain editatua, Donostian inprimitua eta marrazkiak eta tapakiak Iruñan eginak. Guzti hau posible izan zedin, ezinbestekoa izan da Xabier Irujoren koordinazio lana. Historia Garaikidean doktore eta Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko zuzendarikide da bera.

Historialaria den aldetik sakontasun handiz landu eta tratatu du Islandian duela 400 urte gertatuko pasarte latz hau. Gainera, uda honetan bi herrialdeen adiskidetasun eta omenaldi jardunaldien parte izan da, bai Islandian ospatu direnetan eta baita Euskal Herrian ere.

### **Testuingurua.**

400 urte igaro dira, 1615ean 32 euskal bale arrantzaleak Islandiara joan eta akabatuak izan zirenetik. Orain arte oso gutxi zekiten pasarte honen berri baina aurten oihartzun handia izan du hedabideetan. Izan ere, ehundaka urteren ondoren, Islandiako Gobernuak euskaldunak hiltzea baimentzen zuen legea indargabetu du. Horren harira, Etxepare Institutuak eta Islandiako-Euskal Herriko Lagunen elkarteak kongresua antolatu zuten Reykjavic-en. Jardunaldien artean, apirilaren 22an, berradiskidetze ekitaldia egin zuten eta besteak beste, parte hartu zuten Xabier Irujo historialariak, euskal bale arrantzaleen ondorengoak eta Magnus Rafnsson hilketa burutu zuten Islandiarren ondorengoak.

Bale arrantzale hauek ere izan dute Euskal Herrian omenaldia, uztailean Donostiako Aquariumen eta Mutrikun ospatu diren ekitaldietan.

Dudarik gabe, oroimen tristea bi herrialdeentzat, euren arbasoak zein egoera latzean bizi ziren plazaratzen baitu istorioak. Orokorrean, esan behar da euskaldunek eta islandiarrek harreman baketsu eta luzea zutela euskaldunak Ipar Atlantikoko uretan nagusi ziren garai hartan, horren froga dugu 4 glosarioz osatutako garaiko euskara-islandiera pidgina.

### Bitxikeriaz beteriko gertakaria.

Garai zailak ziren eta beharraren ondorioz, eta tekniken hobekuntzei esker, Bizkaiko Golkotik itsaso berri bila abiatu ziren Islandiara eta ondoren Kanadako Ternuara eta Labradorreko kostaldeetara. 1615ean Islandia Danimarkako monarkiaren menpe zegoen eta erregeak monopolioa ezarria zuen, hau da, kanpoko arrantzale orok debekatua zuen Islandiako uretan arrantzatzea eta herritarrak mehatxatuak sentitu ezker erasotzeko baimena zuten. Islandiako buruak ordea, ezkutuan, legez kanpoko lizentziak saltzen zizkien arrantzaleei Danimarkako erregeak honen berririk izan gabe.

1615eko irailean, ekaitz gogor baten ondorioz, Euskal Herritik abiatutako 3 baleontzi Islandiako kosta jo eta ontzia hondaturik geratu ziren. Bi tripulaziok lortu zuten etxera itzultzea baina hirugarrenak ez zuen zorte bera izan, Ísafjarðardjúp fiordoan geratu ziren etxera itzuli ezinik. Garai gogorak ziren islandiarrentzat eta euskaldunak bertan negua pasatzen geratzen baziren guztientzat adina janari ez zutenaren beldurra sartu zitzairen bertako herritarrei. Bestalde, Ari Magnússon mendebaldeko fiordoetako sheriffak, ez zuen Danimarkako erregea euskaldunak bertan arrantzan zebiltzala ohartzerik nahi. Bi arrazoi hauek medio, “euskaldunak hiltzeko” baimena jarri zuen indarrean. 32 euskal bale arrantzaleak Islandiako herritarrek akabatuak izan ziren eta gorpuak zatikatu eta itsasora bota zituzten.

Agintariak, egindako sarraskia justifikatu nahian olerki batzuk idatziaz zituen euskaldunak piratak zirela esanez. Hau ikusirik, Jó Guodmússon, Jon Jakintsua ezizenekoak, benetako kontaketa idatzi zuen, euskal arrantzaleak errugabeak zirela esanez.

## BABESLEAK.



### Informazio gehiago:

[www.nafarikastolak.tk](http://www.nafarikastolak.tk)

<https://twitter.com/nafarikastolak>

<https://www.facebook.com/nafarikastolak>

### Komunikazio arduraduna:

Amaia Zabala Tolosa

[nie.50urte@ikastola.eus](mailto:nie.50urte@ikastola.eus)

688604502